KONTRATU-MOTA: ZERBITZUAK
PROZEDURA: IREKIA (156. artikulua)

ERREGULAZIO HARMONIZATUARI LOTURIKO KONTRATUA: BAI

ERREKURTSO BEREZIA JASO DEZAKEEN KONTRATUA BAI

Tramitación	[X] ordinaria	[ ] urgente
Tramitación anticipada	[ ]	

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN ORRIAK.- GAIA: URBANISMO SOZIETATEA, S.A.REN JABETZAKO URDULIZKO "SANTA MARIÑE" LURPEKO APARKALEKU PUBLIKOETARA SARTZEKO KONTROLA KUDEATU, IBILGAILUEN APARKALDIA ANTOLATU, MANTENTZE-LANAK EGIN ETA DIRU-BILKETA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

EZAUGARRIEN TAULA:

1.- BOTERE ESLEITZAILEA	
Administrazio kontratatzailea	URDULIZ URBANISMO SOZIETATEA,S.A.
Kontratazio-organoa	Zuzendaritza Kontseilua
Helbidea	Elortza Plaza, 1-2. solairua – 48610 URDULIZ
Helbide elektronikoa	uus@urduliz.eus

2.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA www.urduliz.eus

3.- KONTRATUAREN HELBURUA
Kontratuaren helburua da Urbanismo Sozietatea, S.A.ren jabetzako Urdulizko "Santa Mariñe" lurpeko aparkaleku publikoetara sartzeko kontrola kudeatu, ibilgailuen aparkaldia antolatu, mantentze-lanak egin eta diru-bilketa egiteko zerbitzua kontratatzea.
Loteka lizitatzeko aukera: **EZ**
JUSTIFIKAZIOA: ez da posible, kontratua betetzeko orduan zailtasunak eragingo lituzkeelako eta ez litzatekeelako eraginkorra izango. Kontratuaren xedean sartzen diren askotariko zerbitzuak modu independentean egiteak, hau da, horien betearazpena koordinatzeak, zailtasunak eragiten ditu zerbitzua ondo betetzeko orduan, ikuspegi teknikotik.

LOTEA	DESKRIBAPENA	AURREKONTUA (BEZ-A KANPO)
1	Urbanismo Sozietatea, S.A.ren jabetzako Urdulizko "Santa Mariñe" lurpeko aparkaleku publikoetara sartzeko kontrola kudeatu, ibilgailuen aparkaldia antolatu, mantentze-lanak egin eta diru-bilketa egitea.	116.050€

4. CPV KODEA	DESKRIBAPENA
98351000-8	Aparkalekuak kudeatzeko zerbitzuak

5.- LEHIAKETARAKO OINARRIZKO AURREKONTUA	
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren banakapena	Oinarria: 116.050 € % 21eko BEZa: 24.370,50 € **Guztira, BEZa barne: 140.420,50 €**

6.- KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA (BEZ-A KANPO)
Zenbatekoa: 116.050€ + 116.050€ (luzapena) = 232.100 €

7.- EGITEKO EPEA:	
URTEBETE	
Luzapenak: BAI	URTEBETE

8.- BERMEAK	
Behin-behineko bermea	Ez da bat ere
Behin betiko bermea	Esleipen-aurrekontuaren %5a (BEZ kanpo).

9. ESKAINTZA AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA	
Lekua	Bitarteko elektronikoak erabiliz
Aurkezteko epea	**Hogeita hamar (30) egun,** lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

AURKIBIDEA

Edukia:

Edukia: 3

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA EZAUGARRI OROKORRAK 5

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA, BEHARRA ETA IZAERA JURIDIKOA 5

2. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA 6

3. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA ABIAN JARTZEKO EPEA 7

4. KLAUSULA. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA 7

5. KLAUSULA. KREDITUA 8

6. KLAUSULA. PREZIOAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA 9

II.- KONTRATAZIOA 9

7. KLAUSULA. ESLEIPEN-PROZEDURA 9

8. KLAUSULA. KONTRATATU ETA AZPIKONTRATATZEKO GAITASUNA 9

9. KLAUSULA. SAILKAPENA ETA KAUDIMENA 11

10. KLAUSULA. PROPOSAMENEN AURKEZPENA, FORMA ETA EDUKIA 13

11. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA 17

12. KLAUSULA. DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA, PROPOSAMENEN IREKIERA ETA DOKUMENTAZIO-ESKARIA 17

13. HITZARKINA. KONTRATAZIO-MAHAIAREN AKTAK 18

14. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIAREN EGINTZEN EMAITZAREN PUBLIZITATEA ETA UKITUTAKO LIZITATZAILEEI JAKINARAZPENA 19

15. KLAUSULA. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK 19

16. KLAUSULA.- ESKAINTZEN BALORAZIOA 20

17. KLAUSULA.- ESKAINTZEN AZALPENA 20

18. KLAUSULA.- BALIO ANORMALKI BAXUAK DITUZTEN ESKAINTZAK 20

19. KLAUSULA.- KONTRATUA EZ EGIN EDO EZ ESLEITZEKO ERABAKIA HARTZEA, ETA ADMINISTRAZIOAK ESLEIPEN-PROZEDURAN ATZERA EGITEA 21

20. KLAUSULA.- ESKAINTZAK SAILKATU ETA DOKUMENTAZIOA ESKATZEA 21

21. KLAUSULA.- BEHIN BETIKO BERMEA 25

22. KLAUSULA.- BEHIN BETIKO BERMEA ITZULI ETA INDARGABETZEA 26

23. KLAUSULA.- ESLEIPENA 26
24. KLAUSULA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA BURUTZEA 27
III.- KONTRATUA BETETZEA 28
25. KLAUSULA.- KONTRATUA BETETZEKO ARAUBIDE OROKORRA 28
26. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK 30
27. KLAUSULA.- HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZUKIZUNA 32
28. KLAUSULA.- KONTRATISTARENTZAKO ORDAINKETAK 32
29. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA 33
30. KLAUSULA.- KONTRATUA AZKENDU ETA SUNTSIARAZTEA 33
31. KLAUSULA.- ONARPENA ETA BERME-EPEA 33
32. KLAUSULA.- ZEHAPENEN ARAUBIDEA (2017KO SPKL-REN 192-194 ARTIKULUAK) 33
33. KLAUSULA.- URRATZEAK ETA ZEHAPENAK 36
34. KLAUSULA.- JURISDIKZIO ESKUDUNA 37
I. ERANSKINA 38
ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA 38
II. ERANSKINA 40
ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN ESKAINTZA-ELEMENTUEN EREDUA 40
III. ERANSKINA 42
BALDINTZAK BETE ETA BALIABIDEAK BADITUZTELA ZIURTATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA 42
IV. ERANSKINA 44
KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA 44
V. ERANSKINA 45
GIZA BALIABIDEEN TAULA 45

ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN ORRIAK.- GAIA: URBANISMO SOZIETATEA, S.A.REN JABETZAKO URDULIZKO "SANTA MARIÑE" LURPEKO APARKALEKU PUBLIKOETARA SARTZEKO KONTROLA KUDEATU, IBILGAILUEN APARKALDIA ANTOLATU, MANTENTZE-LANAK EGIN ETA DIRU-BILKETA EGITEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA.

I.- KONTRATUAREN XEDEA ETA EZAUGARRI OROKORRAK

1. KLAUSULA.- KONTRATUAREN XEDEA, BEHARRA ETA IZAERA JURIDIKOA

1.- Lizitazio honen helburua da esleitzea Urbanismo Sozietatea, S.A.ren jabetzako Urdulizko "Santa Mariñe" lurpeko aparkaleku publikoetara sartzeko kontrola kudeatu, ibilgailuen aparkaldia antolatu, mantentze-lanak egin eta diru-bilketa egiteko zerbitzua; aparkalekua Alfredo Espinosa Ospitalearen aurrez aurre kokatuta dago. Zerbitzuak barne hartzen ditu aparkalekua kontrolatu, antolatu, bertako diru-bilketa egin, mantentze-lanak egin eta osorik garbitzea, betiere bat eginik baldintza-orri hauetan ezartzen diren modu eta baldintzekin, Agindu Teknikoen Baldintza Orriekin, eta **Urbanismo Sozietatea, S.A.ren jabetzako Urdulizko "Santa Mariñe" lurpeko aparkaleku publikoa erabiltzeko Araudia**rekin. Aparkalekua zerbitzu-kontratu bidez ustiatuko da.

Helburu hori dagokio Europako Batzordeko kontratu-izenen zerrenda komuneko 98351000-8 kodeari: "Aparkalekuak kudeatzeko zerbitzua".

Baldintza-orri hauetan ezartzen diren zerbitzuek gutxieneko izaera daukate, eta, hortaz, hobetu daitezke aurkezten diren eskaintzetan, baina inola ere ezin dira murriztu.

2.- Loteak: EZ

Kasu honetan, ezin da lotetan banatu, kontratua betetzeko orduan zailtasunak eragingo lituzkeelako eta ez litzatekeelako eraginkorra izango. Kontratuaren xedean sartzen diren askotariko zerbitzuak modu independentean egiteak, hau da, horien betearazpena koordinatzeak, zailtasunak eragiten ditu zerbitzua ondo betetzeko orduan, ikuspegi teknikotik.

3.- Kontratuaren beharra: Aparkaleku publikoa kudeatzea beharrezkoa da Urdulizko biztanleentzat, baina baita Urdulizko Ospitalera doazen pertsonentzat ere, eta, horregatik, erantzuna eman behar zaio. Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.ren ustez beharrezkoa da

zerbitzu hau kanpoko enpresa espezializatu bati kontratatzea, ez baitauka zerbitzua zuzenean emateko giza baliabiderik ez bitarteko materialik.

4.- Kontratu hau zerbitzu-kontratua da, hala ondorioztatzen baita Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 17. artikulutik (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

5.- Lizitazioaren gai den kontratuak izaera pribatua du.

6.- Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A. udal-enpresa bat da, eta sartuta dago azaroaren 8ko 9/2017 Legearen esparru subjektiboan, hala ezartzen baita 3.1.h artikuluan —Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea da hori, eta Espainiako lege antolamendura transposatzen ditu Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak—.

7.- SPKLren 3.3.d) artikuluaren arabera, Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.k botere esleitzailearen izaera dauka, eta, lege horren ondorioetarako, ez da administrazio publikotzat jotzen.

8.- Zerbitzu-kontratu hau zuzenbide pribatuaren mende dago, ondorioei, betetzeko baldintzei eta iraungipenari dagokienez, hala ezartzen baita azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 322. artikuluan —Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legea da hori (SPKL), eta Espainiako lege antolamendura transposatzen ditu Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak—.

Kontratu hau prestatu eta esleitzeko, honako hauei begiratu beharko zaie: SPKLri, Administrazio Klausula Berezien Orriei (aurrerantzean AKBO), beren karatulako zehaztapenei, Agindu Teknikoen Orriei eta esleipendunarekin formalizatuko den kontratuko baldintzei.

9.- Kontratuaren esleipendunak, zerbitzua egiteko jartzen diren langileei dagokienez, nahitaez bete beharko du lan-arloko legeria eta Gizarte Segurantzari buruzkoa.

10.- Kontratuak erregulazio harmonizatua bete behar du, 9/2017 Legearen 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. KLAUSULA. KONTRATAZIO-ORGANOA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

1. URDULIZ URBANISMO SOZIETATEA,S.A. da kontratatzailea. Kontratazio-organoa sozietate horretako Zuzendaritza Kontseilua da.

2. URDULIZ URBANISMO SOZIETATEA,S.A.ren kontratu-jarduerari buruzko informazioa gardena dela eta jendearen eskura dagoela bermatzeko, beste publizitate-baliabide batzuk erabil

daitezkeen arren, sozietate publiko honek Kontratatzailearen Profila dauka, eta web orri honetan ikus daiteke, arautzen diren zehaztapenen arabera: www.urduliz.eus

3. KLAUSULA. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA ABIAN JARTZEKO EPEA

1.- Kontratuak URTEBETE iraungo du, eta luzapen bakar bat onartu ahal izango zaio, URTEBEKOA hori ere. Kontratuaren iraupena kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik edo kontratuan finkatzen den egunetik zenbatuko da.

2.- Luzapenak berariaz adostu beharko ditu kontratazio-organoak. Enpresa esleipendunarentzat nahitaezkoak izango dira aldi horiek, baldin eta kontratuaren iraupena amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazten badira eta 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. ataleko azken paragrafoan aurreikusitako inguruabarra betetzen ez bada.

3.- Aurreko ataletan ezarritakoa horrela izanda ere, kontratua amaitzean, prestazioaren jarraipena bermatzen duen kontratu berririk formalizatu ez bada, horren arrazoia izanda kontratazio-organoak aurretiaz ezin izan dituela aurreikusi halako gertakizunak, adjudikazio-prozeduraren baitan gertatu direla eta prestazioa ez eteteko interes publikoko arrazoiak egon badaudela, kontratu hau luzatu ahalko da harik eta kontratu berria gauzatzen hasten den arte, edozein kasutan, gehienez ere, bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe, baldin eta kontratu berriaren lizitazio-iragarkia, gutxienez, jatorrizko kontratua amaitzen den eguna baino hiru hilabete lehenago argitaratu bada.

4.- Kontratua formalizatzen denetik 15 egun naturaleko gehieneko epearen barruan, esleipendunak abian jarri beharko du lehiaketa honen baldintza-orrietan zehaztutako zerbitzua, horretarako adierazitako lekuan.

Epeak igarota, zerbitzua abian ez bada, enpresa esleipenduna berandutze-egoeran dagoela ulertuko da, eta ez da beharrezkoa izango sozietate kontratatzaileak aldez aurretik agintzea. Zehaztutako epeak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

4. KLAUSULA. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

1.- Hona hemen zerbitzuaren lizitazio-oinarria: EHUN ETA HAMASEI MILA ETA BERROGEITA HAMAR EURO (116.050,00 €) URTEAN, gehi BEZari dagokion HOGEITA LAU MILA HIRUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (24.370,50 €), hau da, guztira EHUN ETA BERROGEI MILA LAUREHUN ETA HOGEI EURO ETA BERROGEITA HAMAR ZENTIMO (140.420,50 €).

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoa:	**116.050,00€**
BEZa (% 21)	**24.370,50 €**
LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA	**140.420,50 €**

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua kalkulatzeko, honako banakapen hau hartu da kontuan:

KONTZEPTUAK		ZENBATEKOA
ZUZENEKO GASTUAK	Langileria-gastuak	63.000 €
	Garbiketa eta bestelako zerbitzuak	25.500 €
ZEHARKAKO GASTUAK	Langileria-gastuak	8.000 €
	Administrazio-kudeaketako gastuak	9.000 €
GASTUAK, GUZTIRA		105.500 €
MOZKIN INDUSTRIALA (%10)		10.550 €
GUZTIRA		116.050 €
BEZ %21		24.370,05 €
GUZTIRA, URTEAN (BEZ-A BARNE)		**140.420,50 €**

Langileria-gastuak:

Agindu Teknikoen Orrietako 10. Klausulan gutxienez ezarritako langileen langileria-gastuak kalkulatzeko, kontua hartu da Lan eta Justizia Sailaren Ebazpena, zeinaren bidez xedatzen baita Bizkaiko Eraikuntza Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa erregistratu, argitaratu eta gordailuan uztea (hitzarmenaren kodea, 48000715011981).

Horren barruan sartzen dira, era berean, Gizarte Segurantzarako kotizazioaren urteko zenbatekoa, langabezia, jarduera uzteagatiko babesa, soldata bermatzeko funtsa eta lanbide-heziketa (enpresaren eskutik), bai eta oporren, ez-laneratzeen eta inoizko soldata-igoeren zatia ere, hitzarmenak kategoria profesional bakoitzerako ezarritakoaren arabera.

2.- 2017ko SPKLren 101.1. artikuluan aurreikusitako ondoreetarako, kontratuaren balio zenbatetsia, guztira, kontratuaren iraupenaren zenbatekoek ezarriko dute, BEZik gabe, bai eta luzapenek ere. Balio hori, zehazki, **232.100€**-koa da.

5. KLAUSULA. KREDITUA

Kontratuaren prezioa dela-eta, Urduliz Urbanismo Sozietatea, S.A.k nahikoa kreditu dauka kontratu honetatik eratorritako betebeharrei aurre egiteko, eta konpromisoa hartzen du dagokion kreditua erreserbatuko duela.

6. KLAUSULA. PREZIOAK BERRIKUSTEKO ARAUBIDEA

Espainiako ekonomia desindexatzeko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 8. artikuluan eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 103. artikuluan ezarritakoaren arabera –sektore publikoko kontratuetan prezioak berrikusteko baldintzak arautzen dira horietan–, kontratu honetan ezin da berrikuspen hori aplikatu.

II.- KONTRATAZIOA

7. KLAUSULA. ESLEIPEN-PROZEDURA

2017ko SPKLren 156. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, erregulazio harmonizatuan, eta askotariko esleipen-irizpideak hartuko dira kontuan, agiri honen 15. klausulan ezarritakoaren arabera.

8. KLAUSULA. KONTRATATU ETA AZPIKONTRATATZEKO GAITASUNA

Pertsona natural nahiz juridikoek, espainiarrak nahiz atzerritarrak izan, euren kabuz zein aldi baterako enpresari-elkarteetan hartu ahal izango dute parte kontratu honen esleipenean, jarduteko gaitasun osoa badaukate eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen badute. Ezin izango dira SPKLren 71. artikuluak kontratatzeko ezarri dituen debekuetako batean ere sartuta egon, eta behar bezala sailkatuta egon beharko dira, hala badagokio.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, berariaz ezarri da debekatuta dagoela honako egoeraren batean dauden pertsona edo/eta erakundeak kontratatzea:

- Arlo profesionalean, konpetentzia-faltsutzean, laneratzean, aukera-berdintasunean edo desgaitasunen bat duten pertsonen edo atzerriko pertsonen diskriminaziorik

ezean arau-hauste larri baten ziozko zehapena jaso izana, indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorriz.

- Ingurumenaren gaineko arau-hauste larrien ziozko zehapen irmoa jaso izana, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean, Kostei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan, Bilgarriei eta bilgarrien hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legean, Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean, uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege-Dekretuaren bidez onartutako Urei buruzko Legearen testu bateginean, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean, eta Euskal Herriko Ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Legean ezarritakoaren arabera.

- Lan-arloko arau-hauste oso larriaren ziozko zehapen irmoa jaso izana, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bateginean ezarritakoaren arabera, bai eta arau-hauste larriaren ziozko zehapena jaso izana ere, aipatu testuaren 22.2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

- Zehazki, ezingo dute lizitazioan kontratua egin edo parte hartu lan-harreman indibidual eta kolektiboen gainean arau-hauste oso larrien ziozko zehapen irmoa jaso duten pertsona fisiko edo juridikoek, Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategineko 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, zehazki, sexu-jazarpenaren zioz 8. artikuluko 13. ataleko arau-hausteagatik, baldin eta jazarpena enpresa-zuzendaritzaren eskumen-eremuaren barruan gertatzen bada.

Gainera, enpresa esleipendunek pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dute, eta horien xedea edo jarduera zuzenean egon beharko da lotuta kontratuaren xedearekin, eta antolakunde bat eduki beharko du, langile eta material nahikoarekin, kontratua behar bezala betetzeko.

Era berean, enpresaburuek, hala dagokionean, kontratuaren xede den jarduera edo zerbitzugintza gauzatzeko galdagarria den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute.

Batasunetik kanpoko atzerriko enpresek SPKLren 68. artikuluan xedatutako baldintzak bete beharko dituzte gainera.

Azpikontratatzea: Kontratuaren xede diren prestazio osagarriak zati batean azpikontratatzea baimenduta dago, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 215. artikuluan aurrez ikusitako eskakizun eta baldintzekin.

Azpikontratazioa ondorengo oinarrizko baldintza hauek beteta egingo da:

a) Egin nahi den azpikontratu bakoitza dela-eta, esleipendunak, aurretik, kontratatzaileari jakinarazi beharko dizkio honako datu hauek:

-Azpikontratista identifikatzea, horren barruan direla pertsonalitate, gaitasun eta kaudimen-datuak.

-Azpikontratistak zein kontratu-zati egin dituen identifikatzea.

-Azpikontratatzeko prestazioen zenbatekoa.

b) Ezingo dira azpikontratatu administrazioarekin kontratatzeko gaitasuna kendu zaien pertsona edo enpresak, ezta azpikontratatzen diren prestazio zehatzak gauzatzeko gaitasun, kaudimen eta ahalmen profesionalik ez dutenak ere.

c) Azpikontratatzen duen kontratistak lan horiek hasi baino lehen egiaztatu beharko du lanak egingo dituzten langileen alta eta afiliazioa Gizarte Segurantzan, 5/2011 Errege Dekretu Legeak, apirilaren 29koak, ezkutuko enplegua arautu eta kontrolatzeko, baita etxebizitzak birgaitzen direla sustatzeko ere neurriei buruzkoak, xedatutakoa betetze aldera.

d) Kontratistak langileen ordezkariei eman beharko diete azpikontratazioaren berri, lan-legediarekin bat.

e) Azpikontratistak bakarrik pertsona kontratista nagusiaren mende egongo dira, beraz, bigarrenak kontratua egikaritzean sozietate kontratatzailearen aurrean erantzukizun osoa izango du eta zorrozki erreparatuko die administrazio-klausula berezien pleguei eta kontratuaren baldintzei. Aurrekoaren harira, nahiz eta kontratatzaileak azpikontratatu duela jakin, pertsona kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa ez da aldatuko.

f) Kontratistak azpikontratatutakoei egindako prestazioen truke, hitzartutako prezioa ordainduko die gutxienez 3/2004 Legeak, abenduaren 29koak, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako borrokan neurriak ezartzen dituenak, aurrez ikusitako epeetan. Baldintza hori betetzen dela bermatzeko, sozietate kontratatzaileari egiten zaion faktura bakoitzarekin batera, kontratistak dagozkion ordainagiriak aurkeztu beharko ditu, horien bidez frogatuko baita ordaindu direla azpikontratatutako enpresak edo autonomoak kontratuaren esparruan aurreko hilabetean egindako lanak.

9. KLAUSULA. SAILKAPENA ETA KAUDIMENA

Zerbitzu-kontratua denez, SPKLren 77. artikuluaren arabera, kontratu hau egiteko ez da sailkapenik eskatzen.

Aurrekoa horrela bada ere, eskaintza onuragarriena aurkezten duen enpresa lizitatzaileak egiaztatu ahal izango du bere kaudimen ekonomiko-finantzarioa, bai eta kaudimen tekniko-enpresariala ere, honako sailkapen hau aurkeztuz:

L-6-A

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroak edo Estatuko Erregistro Zentralak emandako sailkapen-egiaztagiriaren titularra ez bada, kaudimen ekonomiko-finantzarioa eta tekniko-profesionala egiaztatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu ahal izango da:

KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA EDO PROFESIONALA: Agiri bidezko egiaztapena:

A.- Kaudimen ekonomiko-finantzarioa:

A.1.- Lizitatzailearen edo hautagaiaren urteko negozio-bolumena; amaitutako azken hiru urteetatik negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, gutxienez 150.000 eurokoa izan beharko da (BEZa barne).

A.2.- Lanbide-arriskuengatiko kalte-ordainen aseguru bat dagoela egiaztatzen duen agiria; 600.000 euro edo gehiagokoa.

A.3.- Ondare garbia, edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioa; azken ekitaldi ekonomikoaren itxieran gutxienez 150.000 eurokoa izan beharko da.

B.- Kaudimen tekniko eta lanbidekoa

B.1.- Azken 3 urteetan kontratuaren xede izan diren zerbitzu nagusien zerrenda, honako hauek adierazita: zerbitzuen zenbatekoa, datak, eta onuradun publikoak edo pribatuak. Halaber, zerbitzu garrantzitsuenetarako gauzatze onaren ziurtagiriak erantsi beharko dira.

B.2.- Diren teknikariak edo unitate teknikoak zehaztuko dira, bai enpresaren barruan sartuta daudenak, bai ez daudenak, kontratuan parte hartu behar badute. Bereziki kalitate-kontrolaren arduradunak aipatuko dira.

B.3.- Kontratua betetzeko lanera zuzenean atxikitako langileen titulazio akademikoak eta profesionalak, bereziki kalitate-kontrolaren arduradunenak.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresaria beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahalko da, erakunde horiekin dituen harremanen izaera juridikoa dena dela ere, baldin eta kaudimen eta bitarteko horiek kontratua egikaritzeko aldi osoan izango dituela egiaztatzen badu eta erakundeak kontratatzeko debekurik ez badu.

Baldintza beretan, 2017ko SPKLren 69. artikuluak aipatzen dituen aldi baterako enpresa-elkarteetan biltzen diren enpresariek aldi baterako elkarteetatik kanpoko baldintzak baliatu ahalko dituzte.

10. KLAUSULA. PROPOSAMENEN AURKEZPENA, FORMA ETA EDUKIA

1. Interesdunen proposamenek honako xedapen hauek bete beharko dituzte:

- Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresariak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe, bai eta mahaiari eta kontratazio-organoari baimena ematea ere Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko kidea den estatu bateko operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko.
- Proposamenak isilpekoak izango dira, eta izaera hori proposamenak ireki arte zaintzen dela bermatzeko bitartekoak erabakiko dira.
- Eskaintzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu.
- Halaber, ezingo du proposamenik aurkeztu beste lizitatzaile batzuekin batera aldi baterako elkartea eginez, aurretik bakarka aurkeztu badu, eta ezingo da egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere.

Arau horiek urratuz gero, berak sinatutako proposamen guztiak ez dira onartuko.

2. Publizitatea:

Kontratua lizitatzeko iragarkia argitara eman beharko da sozietatearen kontratatzailearen profilean (www.urduliz.eus), Euskadiko kontratazio-plataforman ostatatua (https://www.contratacion.euskadi.eus), bai eta Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean (DOUE) ere, kontratuaren xedeak erregulazio harmonizatua eskatzen baitu.

3. Proposamenak aurkezteko tokia eta epea.

Lizitazio hau bitarteko elektronikoen bidez izapidetuko da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen xedapenekin bat etorriz, eta proposamenak aurkezteko epea **hogeita hamar (30) egun**ekoa izango da, lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpenen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita.

Lizitatzaileek beren eskaintzak nahitaez elektronikoki prestatu eta aurkeztu beharko dituzte, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformako eskaintzak prestatu eta aurkezteko tresnaren bidez. Ondorio horietarako, Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman edo Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman erregistratutako erabiltzailea izatea ezinbesteko betekizuna izango da.

Eskaintza elektronikoa eta horrekin batera aurkeztutako beste edozein agiri elektronikoki sinatuta egon beharko dira; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 10. artikuluan onartutako sinadura-sistemaren bat erabilita, hain zuzen. Gutun-azalen edukiaren konfidentzialtasuna berauek ireki arte bermatzeko, bidaltzean tresnak gutun-azal horiek zifratu egingo ditu. Agiriak aurkeztu ondoren, tresnak bidalketa-egiaztagiri bat emango dio entitate lizitatzaileari, data eta orduen zigilu eta guzti. Lizitatzaileak agiri gorde eta inprimatu egin ahal izango du. Nolanahi ere, lizitazioa Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.ren kontratatzailearen profilean (www.urduliz.eus) iragarriko da. Sozietatearen kontratatzailearen profilean, era berean, informazioa emango da kontratuaren lizitazioaren deialdiari buruz, horren barruan sartuta administrazio-klausula berezien agiriak eta dokumentazio osagarria, hala badagokio.

SPKLk 138. artikuluan aipatzen duen informazio gehigarria edo osagarria eskatu behar denean, Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.k eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez egun bat lehenago helarazi beharko du informazio hori, betiere eskaria data horrekiko gutxienez bi egun lehenago eskatu bada. Eskaria egiteko, lizitazioaren iragarkian datorren helbide elektronikoari erreparatuko zaio.

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak hiru artxibo elektronikotan aurkeztuko dira, lizitatzaileak sinatuta ("A", "B" eta "C" gutun-azalak). Horietako bakoitzean, artxibo elektronikoaren izena idatzi beharko da, bai eta ***«Urdulizko "Santa Mariñe" lurpeko aparkaleku publikoetara sartzeko kontrola kudeatu, ibilgailuen aparkaldia antolatu, mantentze-lanak egin eta diru-bilketa egiteko zerbitzuaren kontratazioa lizitatzeko proposamena»*** ere. Artxibo bakoitzean agiri originalak edo indarreko legediarekin bat kautotutako kopiak sartuko dira. Artxiboek honako izen hauek izango dituzte:

- ***"A" artxibo elektronikoa: administrazio-agiriak.***
- ***"B" artxibo elektronikoa: (automatikoki baloratzeko irizpideak).***
- ***"C" artxibo elektronikoa: (balio-judizio baten arabera baloratu beharreko agiriak)***

Artxiboen barruan, hurrengo agiri hauek eta horien zerrenda zenbakitua aurkeztuko dira:

"A" ARTXIBO ELEKTRONIKOA (ADMINISTRAZIO-AGIRIAK): Artxibo honetan, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Kontratazio Agiri Europar Bakarra (DEUC). Prozedura irekiaren bidez egindako proposamenekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, kontratazio-agiri europar bakarraren formularioari egokituko zaiona, hurrengo paragrafoan adierazitakoari jarraikiz. Adierazpenak sinatuta egon beharko du, eta behar den identifikazioa izango du, eta, hartan, honako hau adieraziko du lizitatzaileak:

1. Sozietatea zuzen eratuta dagoela eta bere xede sozialaren arabera lizitaziora aurkeztu ahal dela, eta adierazpenaren sinatzaileak behar den ordezkaritza duela proposamena aurkezteko eta hura ordezkatzeko.

2. Behar den sailkapena duela, hala badagokio, edo eskatzen diren kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionaleko baldintzak betetzen dituela, agiriak ezartzen dituen baldintzetan, hurrengo artikuluak aipatzen duen Kontratazio Agiri Europar Bakarraren formulario normalizatuaren arabera.

3. Ez duela ez berez, ez hedapenez, lege honen 71.3 artikulua aplikatzearen ondorioz, kontratatzeko debekurik.

Agiri hori honako helbide honetan eskuratu daiteke, eta elektronikoki bete: https://ec.europa.eu/tools/espd?lang=es

c) Aldi Baterako Enpresari Elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresak edo gehiagok parte hartzen badute lizitazio batean, aldi baterako elkartearen bidez, orduan agiri pribatua aurkeztu beharko dute. Bertan, honako hauek adierazi beharko dituzte: hura sinatzen duten enpresen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza, eta formalki aldi baterako elkartea eratzeko hartu duten konpromisoa, baldin eta esleipendun suertatzen badira (SPKLren 69. artikulua eta APKLAOren 24. artikulua).

c) Erantzukizunpeko adierazpena, baldintzak betetzen direla eta behar diren baliabideak badituztela frogatzeko, betiere bat eginda baldintza-orri hauetan eta Agindu Teknikoen Orrietan zehazten diren profil eta zehaztapenekin. Eskatutakoa badagoela egiaztatzen duen zinpeko adierazpena aurkeztu behar da, **III. ERANSKIN**aren arabera.

d) Berezitasunak atzerriko lizitatzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioan. Atzerriko lizitatzaileek, aurreko a) letran aipatzen den erantzukizunpeko adierazpenaz gain, jarraian zehazten den dokumentazio espezifikoa aurkeztu beharko dute.

Espainiakoak ez diren enpresa guztiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen intzidentzia guztietarako edozein mailako Espainiako auzitegi eta epaitegien eskumenpean geldituko dela adierazten duen aitorpena; beraz, hala badagokio, uko egingo dio lizitatzailearen atzerriko eskumen-foruari (SPKLren 140.1.f artikulua)

Europar Batasuneko kideak ez diren edo Europar Batasunaren Espazioari buruzko Akordioa sinatu ez duten estatuetako enpresek, gainera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Espainiak daukan ordezkaritza diplomatiko iraunkorrak edo bulego kontsularrak emandako txostena. Horren bidez, enpresak egiaztatu ondoren, ziurtatuko dute tokiko lanbide, merkataritza edo antzeko arloko erregistroan inskribatuta daudela, edo

halakorik ezean, kontratuaren xedeko jardueren eremuko tokiko trafikoan jardun ohi dutela.

- Elkarrekikotasun-txostena, SPKLren 68. artikuluak aipatzen duena, erregulazio harmonizatuko kontratuak direnean izan ezik; kasu horretan, Munduko Merkataritza Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioa sinatu duen estatuaren izaerari buruzko Ekonomia Ministerioaren Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren edo Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txosten batekin ordezkatuko da.

e) Gaitutako helbide elektroniko bat, SPKLren 15. xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorriz. Helbide horretan egingo dira kontratazio-espediente honetatik eratorritako jakinarazpenak. **(IV. ERANSKINA)**

g) SPKLren 75. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritzen bada, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du.

- "C" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA (BALIO-JUDIZIO BATEN ARABERA BALORATU BEHARREKO AGIRIAK): Eskatutako dokumentazioa izango du, balio-judizioaren bidez hautematen diren eta aldez aurretik ebaluatu behar diren esleipen-irizpideei buruzkoa. Gutun-azal horretan inola ere ezingo dira sartu "B" gutun-azal elektronikoan sartu beharreko dokumentuak.

1. **Memoria teknikoa:** Zerbitzuaren memoria teknikoa aurkeztu beharko dute, non garatuko baitira enpresa esleipendunak nola emango dituen zerbitzuak. Zerbitzu horiek, hain zuzen ere, Agindu Teknikoen Orrietako 3. klausulan jasotzen dira; eta, besteak beste, deskribatu beharko dute nola gauzatuko duten zerbitzua, zein material erabiliko dituen, zenbatean behin emango dituen zerbitzuak...

2. Giza baliabideen plana: Zerbitzuari atxikiko zaizkion langileen zerrenda aurkeztu beharko dute, ondoko ingurumari hauek zehaztuta: lanbide-kategoria, zuzeneko langileak, arduraren bat duten langileak, lan-ordutegia, antzinatasuna, kontratazio berriak egiteko irizpideak, jubilazioak, langileen prestakuntza-plana, segurtasun eta sasun-plana, pizgarrien plana, oporrak, arropak, norbera babesteko ekipoa eta abar. Halaber, nahitaezkoa izango da langileen taula bat betetzea, aurreko paragrafoan proposatutako datuak jasotzen dituena. **V. ERANSKIN**eko taula aurkeztu beharko da.

"B" GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA (AUTOMATIKOKI BALORATZEKO IRIZPIDEAK): Artxibo honetan, honako agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Proposamen ekonomikoa: **II. ERANSKIN**aren arabera aurkeztuko da.

Lizitatzaileen eskaintza ekonomikoetan, aparteko partida batean adierazi beharko da balio erantsiaren gaineko zergaren izenean jasanarazi beharreko zenbatekoa.

Proposamenen batek lizitazioaren oinarrizko aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua funtsean aldatzen badu, edo proposamenaren zenbatekoan ageriko akatsen bat badu, edo enpresa lizitatzaileak aitortzen badu akatsen edo funsgabetasunen bat duela eta horren ondorioz bidera ezina dela, kontratazio-mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitua emanez. Aitzitik, ereduan hitz batzuk aldatzea edo ez jartzea, ereduaren esanahia aldatzen ez bada, ez da kausa nahikoa izango proposamena errefusatzeko.

Lizitatzaile bakoitzak ezin izango du proposamen bat baino gehiago aurkeztu. Era berean, eskaintzaileak berak bakarrik eskaintzaren bat sinatu badu, ezingo du beste enpresa batzuekin aldi baterako elkartuta beste eskaintzarik sinatu, eta ezingo da aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu. Printzipio hori urratzen bada, berak aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak gaitzetsiko dira.

Proposamena enpresa-talde batek egiten duenean, hura osatzen duten guztiek sinatu beharko dute proposamena, zuzenean edo ordezkari baten bidez.

Ez da aldaerarik onartzen.

11. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio-mahaia izango da eskaintzak baloratzeko eta administrazio-agiriak kalifikatzeko organo eskuduna, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikuluan aurreikusitakoaren arabera jardungo du.

Kontratazio-mahaia honako hauek eratuko dute:

- Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.ko Zuzendaritza Kontseiluko burua
- Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.ko Zuzendaritza Kontseiluko hiru kontseilukide.
- Mahaiko idazkaria, hizpidearekin baina botorik gabe

12. KLAUSULA. DOKUMENTAZIOAREN KALIFIKAZIOA, PROPOSAMENEN IREKIERA ETA DOKUMENTAZIO-ESKARIA

1.- "A" gutun-azalaren irekiera eta administrazio-dokumentazioaren kalifikazioa

Mahaiak «A» artxiboa zabalduko du elektronikoki, eta bertan jasotako dokumentazioa SPKLren 157. artikuluan ezarritakoaren arabera kalifikatuko du. SPKLren 141.2. artikulua aplikatuz,

Mahaiak zuzen daitezkeen akatsak ikusten baditu aurkeztutako dokumentuetan, eragindako lizitatzaileei jakinaraziko die, eta hiru egun naturaleko epea emango die akats horiek zuzen ditzaten. Gainera, lizitatzaileei jakinarazten zaizkien zuzentze-eskaerak argitara emango dira Urduliz Urbanismo Sozietatea,S.A.ren kontratatzailearen profilean eta Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman ere.

Interesdunentzako jakinarazpena baliabide elektronikoen bidez egingo da.

Azkenik, kontratazio-mahaiak zehaztuko du zein lizitatzaile onartu diren eta zein baztertu, bai eta baztertzeko arrazoiak zein diren ere.

2.- "C" gutun-azalaren irekiera eta azterketa

"C" artxiboan jasotako dokumentazioa —balio-judizioaren menpe dauden irizpideak jasotzen dituena— kontratatzailearen profilean adierazten den egun eta orduan irekiko da.

Egintza horri hasiera emateko, mahaiak egindako proposamenen kalifikazioari buruzko berariazko erabakia hartuko da, lizitaziorako onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak identifikatuta.

Mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, agiri honetan ezarritako irizpide eta haztapenen arabera baloratzeko.

Lizitazio-prozeduratik kanpo geratuko dira eskatutako baldintza teknikoak betetzen ez dituztenak, bai eta formulak aplikatuta ebaluatu beharreko dokumentazioa jasotzen dutenak ere ("B" gutun-azala).

3.- "B" gutun-azalaren irekiera eta azterketa

"C" artxiboa ireki eta bertako dokumentazioa baloratu ondoren, "B" artxiboaren irekiera publikoa egingo da kontratatzailearen profilean adieraziko den egunean eta orduan.

Egintza horretan, eskaintza bakoitzean balio-judizioen mendeko irizpideei esleitutako balorazioa emango da jakitera. Ondorioz, lehen faserako eskatutako 18 puntuko gutxieneko muga gainditu duten enpresen "B" artxiboak baino ez dira irekiko.

13. HITZARKINA. KONTRATAZIO-MAHAIAREN AKTAK

Aurreko atalen arabera garatutako guztia akta egokietan jasota geratuko da, eta, bertan, halaber, prozeduraren emaitza eta eraginak islatuko dira.

14. KLAUSULA. KONTRATAZIO-MAHAIAREN EGINTZEN EMAITZAREN PUBLIZITATEA ETA UKITUTAKO LIZITATZAILEEI JAKINARAZPENA

1.- Eskaintzak kalifikatu, onartu edo baztertu diren, kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Indarreko legediaren arabera iragarri ezin den informazioa bazter utziko da. Edonola ere, bidezkoa bada, ukitutako lizitatzaileei beharrezko komunikazioa edo jakinarazpena egingo zaie.

2.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena baztertutzat joko da, jakinarazpena egin denetik 10 egun natural igaro eta haren edukia irakurri ez bada; eta epe barruan jakinarazteko betebeharra betetzat joko da, jakinarazpena Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataformaren egoitza elektronikoan jartzen denean.

15. KLAUSULA. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

1.- Hirugarren puntuan ezarritakoak izango dira kontuan hartu beharreko irizpideak, eta, kontratua esleitzeko, horien gainean egingo den haztapena, bai oinarrizko eskaintzan bai, hala badagokio, aldagai eta hobekuntzetan.

2.- Enpresa lizitatzaileren batek formula aritmetikoak aplikatuz baloratzen ez diren esleipen-irizpideei buruzko dokumentazioa aurkezten ez badu, enpresa horren proposamena ez da baloratuko kasuan kasuko irizpideari dagokionez. Proposamenak ez dira inola ere baztertuko esleipen-prozeduratik arrazoi horren ondorioz.

3.- Esleipen-irizpideak.- Honako hauek dira kontratuaren esleipenaren oinarri izango diren eskaintzak baloratzeko irizpideak eta horiei esleituko zaien haztapena:

A) AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: **Gehienez ere, 60 puntu**

1. **Eskaintza ekonomikoa:** Gehienez ere 60 puntu.

   Eskaintza ekonomikoari buruzko puntuak honako formula honen bidez kalkulatuko dira:

   P = 60 x eskaintzarik txikiena / N eskaintza

   “P”, zehazki, baloratu den lizitatzaileak eskuratutako puntuazioari dagokio; “eskaintzarik txikiena” da onartu den eskaintzarik baxuena; eta “N eskaintza” baloratzen den eskaintza ekonomikoaren zenbatekoari dagokio.

B) BALIO-JUDIZIOAREN BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: Gehienez ere 40 puntu.

Aipatutako irizpideetatik honako hauek dira balio judizio baten mendekoak eta hautemate automatikoko irizpideen aurretik balioetsiko direnak:

1. **Memoria teknikoa.** Gehienez ere 35 puntu
2. **Giza baliabideen plana:** Gehienez ere 5 puntu.

Zerbitzuaren memoria teknikoa eta giza baliabideen planak, batera, 20 orrialde izango ditu gehienez —A4 formatuan—; kopuru horretatik kanpo geratzen dira eranskinak, aurkibidea eta azala. Testua idazteko, Arial 11 motako letra-mota bakarra erabiliko da.

Hurrengo fasera (B gutun-azala irekitzea) igarotzeko, ezinbestekoa izango da 18 puntu edo gehiago lortzea memoriaren balorazioan.

16. KLAUSULA.- ESKAINTZEN BALORAZIOA

Bere eginkizunak betetzeko, mahaiak beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, SPKLren 146.2.b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Eskatutako preskripzio teknikoak betetzen ez dituzten proposamenak baztertu egingo dira.

17. KLAUSULA.- ESKAINTZEN AZALPENA

Kontratazio-organoak edo kontratazio-mahaiak lizitatzaileari eskatu ahal izango diote aurkeztutako eskaintza azaltzeko, edo haren idazkuntzan akats material nabarmenak badaude, horiek zuzentzeko, betiere tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen bada. Edonola ere, ezin izango dira eskaintzaren baldintzak aldatu. Egindako guztia agiri bidez jasota geratu beharko da espedientean (SPKLren 95. artikulua).

18. KLAUSULA.- BALIO ANORMALKI BAXUAK DITUZTEN ESKAINTZAK

Baldin eta, eskaintzak baloratzeko irizpideetan ezarritako parametroak aplikatuz, eskaintza horietakoren bat anormaltasun-presuntzioan badago, bost eguneko epea emango zaie eragindako lizitatzaileei, eskaintza baldintza horietan gauzatzea ahalbidetzen dieten inguruabarren justifikazio egokia aurkez dezaten. Egoera hori baloratzeko irizpideak azaroaren 8ko 9/2017 Legean zehazten dira, 149.4 artikuluan (lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

Eskaintzen izaera anormala ikusteko, kontuan hartuko da zein diren Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 85. artikuluan ezarritako irizpideak. Nolanahi ere, eskaintzak baztertu egingo dira gutxiegizkoak direla egiaztatzen bada azpikontratazioari buruzko araudia urratzen dutelako edo ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak, estatukoak nahiz nazioartekoak, betetzen ez dituztelako edo, bestela, indarrean dauden hitzarmenak betetzen ez dituztelako.

Eginkizun honetan, aztertuko dira eskaintza neurriz kanpokotzat sailkatu zaien alderdi kontratisten justifikazioak eta horiek aztertzen dituen udal-txosten teknikoa, eta, ondoren, Kontratazio Mahaiak eskaintza onartzeko edo baztertzeko proposamena egingo dio kontratazio-organoari, behar bezala arrazoituta. Eskaintzen balorazioan ez dira sartuko neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jotako proposamenak, harik eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 149. artikuluan ezarritako prozedura bete, eta, hala badagokio, eskaintza justifikatu arte. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

19. KLAUSULA.- KONTRATUA EZ EGIN EDO EZ ESLEITZEKO ERABAKIA HARTZEA, ETA ADMINISTRAZIOAK ESLEIPEN-PROZEDURAN ATZERA EGITEA

SPKLren 152. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia eta prozeduran atzera egiteko erabakia kontratazio-organoak hartu ahalko ditu, formalizatu aurretik.

Kontratua ez esleitzeko edo ez egiteko erabakia bakarrik hartuko ahalko da espedientean behar den lez justifikatutako interes publikoko motiboengatik.

Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo esleipen-prozedura arautzeko manuen arau-hausteren bat egon behar du, zuzendu ezin daitekeena, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoia.

Kontratua ez egin edo ez esleitzeko erabakia edo esleipen-prozeduran atzera egitekoa, SPKLren 152. artikuluaren arabera, lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Halaber, Europako Batzordea jakinaren gainean jarriko da, baldin eta kontratua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bada.

20. KLAUSULA.- ESKAINTZAK SAILKATU ETA DOKUMENTAZIOA ESKATZEA

1.- Eskaintzak sailkatu eta esleipena proposatzea

Eskaintzak baloratu ondoren, kontratazio-mahaiak, aktarekin batera, dagokion balorazioa eta esleipen-proposamena bidaliko dizkio kontratazio-organoari. Proposamen horretan, eskaintzak beheranzko ordenan jasoko dira, 15. klausulan adierazitako irizpideen arabera eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa barne, eta kalitate-prezio erlazio onena duena identifikatuko da.

Kontratua esleitzeko proposamenak ez dakar proposatutako lizitatzailearen aldeko eskubiderik, eta ez ditu horiek eskuratuko, administrazioaren aurrean, kontratua formalizatu arte.

Bi lizitatzaileren edo gehiagoren guztizko puntuazioaren artean berdinketa badago, irizpide sozial hauek aplikatuko dira konpontzeko, hurrenkeraren arabera, eskaintzak aurkezteko epea amaitzeko uneari dagokionez:

- Enpresa bakoitzaren plantillan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran bizi diren langileen ehuneko handiena; berdinketa egonez gero, plantillan desgaitasuna duten langile finkoen kopuru handiena edo plantillan inklusioko langileen kopuru handiena nagusituko da.
- Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- Enpresa bakoitzaren plantillan emakumezko langileen ehuneko handiena.
- Zozketa, aurreko irizpideen aplikazioak berdinketa hausterik ekarri ez badu.

Berdinketa hausteko irizpideen egiaztagiriak alde lizitatzaileek aurkeztuko dituzte berdinketa gertatzen den unean, ez aurretik.

2.- Eskaintza kalitate-prezio erlazio onenarekin aurkeztu duen lizitatzaileak aurretiko betekizunak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea

Mahaiak kontratazio-organoari proposamena egin ondoren, kasuan kasuko zerbitzuek eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko diote, 10 egun balioduneko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik aurrera, kontratua esleitzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazioa aurkez dezala.

Dokumentazioa honako hau izango da:

2.1. Jarduteko gaitasuna eta jarduera-eremua egiaztatzen dituzten agiriak. Enpresa pertsona juridikoa bada, eratze- edo aldatze-eskritura aurkeztuz egiaztatuko da jarduteko gaitasuna. Eskritura hori Merkataritzako Erregistroan behar bezala inskribatu beharko da, aplikatzekoa den merkataritza-legeriaren arabera betekizun hori eska daitekeenean.

Baldintza hori eskatu ezin bada, eraketa-eskritura edo -agiriaren bidez egiaztatuko da jarduteko gaitasuna, edota estatutuen edo sorrerako egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez; agiri horretan jarduerak zein arau bete behar duen zehaztuko da eta, gainera, kasuan kasuko erregistro ofizialean egon beharko dira inskribatuta.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan ahalko dira, baldin eta kontratuko prestazioak erakundearen berezko helburu, xede edo jarduera-eremukoak badira, estatutuetan edo fundazio-arauetan ezarritakoaren arabera. Halaxe dela egiaztatu beharko da aurkeztutako dokumentazioan.

Enpresa indibiduala bada, nortasun-agiri nazionala edo horren ordezko dokumentua aurkeztuko da.

2.2. Hala badagokio, ordezkaritza egiaztatzeko agiriak. Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonek NANaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako behar besteko ahalordea ere.

Ordezkariak NANik ez badauka, notario aurrean legeztatutako edo administrazio-organo eskudunak konpultsatutako fotokopia aurkeztu beharko da, arauz hura ordetzen duen agiriarena.

Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalorde hori Merkataritzako Erregistroan egon beharko da inskribatuta.

Hala ere, ekintza zehatz baterako ahalordea bada, ez da beharrezkoa izango Merkataritzako Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritzako Erregistroaren Araudiko 94.1.5 artikuluan azaldutakoarekin bat etorriz.

2.3 Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta tekniko edo profesionala. Kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzea, SPKLren 87. eta 89. artikuluetan aurreikusitako eta plegu honen 9. klausulan zehaztutako bideetako bat erabiliz.

Aldi Baterako Enpresa Elkarteetan, kaudimena zehazteko, elkartea osatzen duten horien ezaugarriak metatuko dira (APKLAOren 24.1. artikulua).

Espainiakoak ez diren lizitatzaileek, baldin eta Europar Batasuneko estatu-kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako nazionalitatea badute, eta Espainian sailkatuta ez badaude, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta teknikoa egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, sailkapenaren ordez, SPKLren 87. eta 88. artikuluetan ezarritako moduan, eta kontratazio-organoak agiri honen 9. klausulan aurreikusitako bitartekoak erabiliz.

Ondorio horietarako, Europar Batasuneko estatu-kideek zerrenda ofizial batzuk ezarri dituzte kontratatzeko baimena duten enpresariekin, eta zerrenda ofizial horiek eramateko eskumenak dituzten organoek emandako izen-ematearen egiaztagiriek –egiaztagiria ematen

duen estatu-kidean finkatutako enpresarien ingurukoek– gaitasun-presuntzioa ekarriko dute, horietan jaso diren hautaketa kualitatiboko eskakizunei dagokienez.

Presuntzio-balio berbera izango dute, horietan ziurtatutako gaiei dagokienez, lizitatzailea ezarrita dagoen estatu-kideko legeriarekin bat datozen ziurtatze-organismo eskudunek emandako ziurtagiriek, Europako ziurtapen-arauak betetzen dituztenean.

Aurreko apartatuan aipatutako agirietan, enpresaria zerrendan inskribatzeko edo ziurtagiria emateko erabili diren erreferentziak adierazi beharko dira, baita lortutako sailkapena ere.

2.4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko ziurtagiriak.

2.5. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari lotutako jarduerak egiten direnean: martxan dagoen ekitaldiari dagokion alta, edo azken ordainagiria, aipatu Zergaren matrikulan baja eman ez dela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin eta, hala badagokio, salbuetsita dagoela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpenarekin batera. **2.6. 250 langiletik gorako enpresek berdintasun-plan bat dutela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute**, hala ezartzen baita Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 45. artikuluan. Plan horretan honakoak ezarriko dira: lortu beharreko berdintasun-helburu zehatzak, helburu horiek lortzeko ezarri beharreko estrategiak eta praktikak, eta jarritako helburuei jarraipena egiteko eta ebaluatzeko sistema eraginkorrak.

2.7. Plantillan dauden langileen kopuru osoari eta desgaitasuna duten langile finkoen kopuru partikularrari buruzko adierazpena. 50 langile edo gehiagoko enpresek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuen erreserba-kuota betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte, edo, bestela, ordezko edo gehigarri moduan, har daitezkeen neurriak betetzen dituztela egiaztatzen dutenak, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan eta hura garatzen duen araudian aurreikusitakoaren arabera.

2.8. Baldintza-orri hauetako 21. klausulan ezarritakoaren arabera bidezkoa den **behin betiko bermea eratu izana**ren egiaztagiria.

2.9. ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA kontratatu izanaren egiaztagiria. Urduliz Urbanismo Sozietatatea, S.A. asegurudun gehigarritzat hartuko da, hirugarrenaren izaera galdu gabe. Gutxieneko berme-muga 600.000 eurokoa izango da.

2.10. Kontratu honetako jarduera egiten duten langileei aplikatzekoa zaien **hitzarmen kolektiboa zehaztea**.

2.11. Zerbitzuari atxikitako **langile guztien curriculum vitaea.**

3.- Aurrekoa gorabehera, Euskal Autonomia Erkidegoko edo Estatuko **Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro**ko inskripzio-ziurtagiria aurkeztuz gero, enpresa lizitatzaileak, bertan adierazitakoaren arabera eta kontrakorik frogatu ezean, erregistroan inskribatuta dauden inguruabarren egiaztagiriak aurkeztu beharko ditu.

Erregistro horietako batean inskribatu izanaren ziurtagiria aurkezteak SPKLren 87.2 eta 96. artikuluetan eta SPKLren zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuaren 19. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Ziurtagiriekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, ziurtagirian jasotako inguruabarrak ez direla aldatu adierazten duena.

Lizitatzaileen eta Enpresen Erregistro Ofizialaren inskripzioan ez bada agertzen egiaztatu beharreko baldintzaren bat, enpresak SPKLn aurreikusitako bideetako baten bidez justifikatu beharko ditu.

Enpresa Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dagoenean edo Europar Batasuneko estatu-kide baten datu-base nazionalean ageri denean, enpresaren espediente birtual legez, dokumentuen bilketa elektronikoaren sistema edo aurre-kalifikaziorako sistema legez, eta horiek organoek doan jaso ahal badituzte, ez du edukiko frogagiriak edo aipatutako lekuetan inskribatutako datuen bestelako frogagiririk aurkezteko beharrik, eta bakarrik izango da beharrezkoa berariaz adieraztea lizitatzailea erregistroan edo dagokion datu-basean inskribatuta dagoela.

4.- Aurreko ataletan aipatutako dokumentazioa behar bezala eta ezarritako epean betetzen ez bada, lizitatzaileak eskaintza kendu duela ulertuko da, eta, zehapenaren kontzeptupean, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3, BEZa kanpo, eskatuko zaio. Eratuta balego, lehenengo behin-behineko bermearekin ordainduko da.

Aurreko idatz-zatian adierazitako ustezkoan, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurrengo lizitatzaileari, eskaintzen sailkapen-hurrenkerari jarraikiz (SPKLren 150.2. artikulua).

5.- Klausula honetan ezarritakoa aipatutako epean betetzen ez duen lizitatzaileak, dolo, erru edo zabarkeria dela medio, kontratatzeko debekua duela ezarri ahalko da, SPKLren 71.2.a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

21. KLAUSULA.- BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintzarik onena aurkezten duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du kontratazio-organoaren eskura. Zenbatekoa lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren % 5 izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kenduta. Bermea eratu dela 10 egun balioduneko epean egiaztatu beharko da, jakinarazpena bidaltzen denetik zenbatzen hasita.

Nolanahi ere, behin betiko bermeak 2017ko SPKLren 110. artikuluan aipatzen diren kontzeptuei erantzungo die. Kontzeptu horien barruan sartzen da kontratistak ez betetzea kontratuaren xede diren prestazioak behar bezala ez gauzatzearen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galerak ordaintzeko betebeharra, 2017ko SPKLren 196. artikuluan aurreikusitakoa.

Behin betiko bermea 2017ko SPKLren 108.1. artikuluan ezarritako moduren batean eratuko da.

Kontratistak, eska dakizkiokeen kalte-ordainak edo zigorrak behin betiko bermearen bitartez ordaintzen badira, berriz jarri beharko du bermea, edo lehendik jarritakoa handitu, dagokion heinean. Kalte-ordainak edo zigorrak ordaintzen direnetik hamabost egun izango ditu horretarako, eta hala ez egitea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

Kontratuaren aldaketak direla eta haren prezioa aldatzen denean, berriro egokituko da bermea, 15 eguneko epean, enpresariari aldaketa-akordioa jakinarazten zaionetik aurrera zenbatzen hasita, aldaketaren ondoriozko kontratuaren prezioarekin proportzio egokia izateko; bestela, kontratua suntsiarazteko kausa izango da. Ondore horietarako, ez dira kontuan hartuko kontratuen prezioen berrikuspena onartzearen ondorioz sortzen diren prezio-aldaketak.

22. KLAUSULA.- BEHIN BETIKO BERMEA ITZULI ETA INDARGABETZEA

Behin betiko bermea itzultzeko eta indargabetzeko, 2017ko SPKLren 111. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, betiere berme-aldia amaitu bada eta kontratuari dagozkion betebeharrak behar bezala bete badira.

23. KLAUSULA.- ESLEIPENA

Kontratazio-organoak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari esleituko dio kontratua, 2017ko SPKLren 145. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita.

2017ko SPKLren 158. artikuluarekin bat, behin betiko bermea eta eskatutako gainerako dokumentazioa aurkeztuta, gehienez ere 5 eguneko epean, kontratua esleipendun gisa proposatutako lizitatzaileari esleituko zaio, eta esleitu ondoren, formalizatu egingo da.

Esleipena gehienez ere hiru hilabeteko epean egingo da, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Esleipenaren ebazpena arrazoitu egin beharko da, lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 eguneko epean.

Jakinarazpena bitarteko elektronikoak erabiliz egingo da, 2017ko SPKLren hamabosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

Ezin izango da esleitu barik utzi lizitazio bat, baldin eta agirian azaltzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

24. KLAUSULA.- KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA BURUTZEA

1.- Kontratua lizitazioaren baldintzetara zehatz-mehatz egokitzen den agiri administratiboan formalizatuko da, eta agiri hori nahikoa izango da edozein erregistro publikotara sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzeko eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak. Kontratua formalizatzeko agirian ezin izango da inoiz sartu esleipenaren baldintzak aldatzen dituen klausularik.

2.- Kontratua formalizatzearekin batera burutzen da, eta inola ere ezingo da kontratua gauzatzen hasi aldez aurretik formalizatu gabe.

3.- Kontratu honen kontra kontratazioaren arloko errekurtso berezia jar daitekeenez, lizitatzaileei esleipen-jakinarazpena bidali eta hamabost lanegun igaro baino lehen ezingo da formalizatu.

Kontratazio-organoak, aurreko lerrokadan aurreikusitako epea igarotakoan eta, betiere epe horretan kontratuaren formalizazioa etetea ekarriko lukeen errekurtsorik jarri ez bada, esleipendunari eskatuko dio formaliza dezala kontratua, gehienez ere bost egun naturaleko epean, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Berdin jokatuko dute errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak etenaldia bertan behera uzten duenean.

4.- Esleipendunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik kontratua adierazitako epearen barruan formalizatu ez bada, administrazioak lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko dio, BEZa kanpo, zehapen kontzeptuan, eta, lehenengo eta behin, behin betiko bermearen aurka egingo da eraginkor, eratuz gero, SPKLren 71.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera kontratatzeko debekuren batean egoteko aukera eragotzi gabe.

5.- Kontratua ez formalizatzeko arrazoiak administrazioari egotzi ahal bazaizkio, atzerapenak eragin ahal izan dituen kalte eta galeren kalte-ordaina emango zaio kontratistari.

6.- Kontratua formalizatu dela behar bezala iragarri beharko da, SPKLren 154. artikuluan ezarritakoaren arabera.

III.- KONTRATUA BETETZEA

25. KLAUSULA.- KONTRATUA BETETZEKO ARAUBIDE OROKORRA

1. Kontratua kontratistak beteko du, agiri honetako klausulei jarraikiz, eta bidezkoa bada, espedienteari lotutako preskripzio teknikoei jarraikiz, betiere administrazioak burutuko dituen ikuskapen eta kontrolari lotuta. Administrazioak bere eskumen horiek hala ahoz nola idatziz burutu ditzake.

2. Kontratistari edo bere mendeko pertsonei egozteko moduko ekintza edo hutsegiteen ondorioz arriskuan ipintzen bada kontratua behar den moduan betetzea, kontratua egikaritzeko modu zuzena berrezartzeko edo lortzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak hartzea eskatu ahal izango du Administrazioak. `

Hauek dira, era berean, kontratistaren betebeharrak:

a) Zerbitzua ematea, adostutako jarraitutasunarekin, eta partikularrei berau erabiltzeko eskubidea bermatzea, ezarritako baldintzetan, eta onartutako tarifetan jasotako kontraprestazio ekonomikoa ordainduta, hala badagokio.

b) Zerbitzuaren funtzionamendu ona zaintzea.

c) Zerbitzua eman behar horretan inori kalterik eraginez gero, kalte-ordaina ematea, non eta kaltea ez den Administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik.

d) Hala badagokio, derrigortutako obra eta instalazioak entregatzea, kontratuan ezarritakoari jarraikiz, funtzionamendu- eta kontserbazio-egoera egokietan.

Zerbitzuari lotutako ondasunak ezin izango dira enbargatu.

Kontratistak ez-betetzeren bat egiten badu, eta, horren ondorioz, zerbitzuan nahasmendu larria sortzen bada eta ezin bada beste bide batzuetatik konpondu, eta Administrazioak ez badu kontratua suntsiaraztea erabakitzen, administrazioak kontratua bahitzea edo esku hartzea erabaki dezake, harik eta nahasmendu hori desagertzen den arte. Nolanahi ere, benetan sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio kontratistak Administrazioari.

3. Kontratistaren kontura dira gastuak eta zergak, iragarkiak, kontratuaren formalizazioarenak, eskritura publikoa egiten bada, bai eta kontratua betearazteko beharrezkoak diren lizentzia eta baimenenak ere, horniduraren xede diren ondasunak zuzentasunez egikaritzeko eta entregatzeko.

Era berean, enpresak kontratua betetzeko egin behar dituen gastu guztiak ordaindu beharko ditu, besteak beste, orokorrak, finantzarioak, garraioarenak eta joan-etorrienak, materialenak,

instalazioenak, kargura dituen langileen ordainsarienak, egiaztapenenak eta saiakuntzenak, tasa eta edozein zergarenak, BEZarenak, jarduerarekin lotutako zergarenak eta kontratua betearazteko hura indarrean dagoen bitartean eduki ditzakeenak.

Lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan eta esleipen-proposamenetan, ondorio guztietarako ulertuko da barruan daudela kontzeptuek zergapetzen dituzten edozein motatako zergak.

4. Garatzen diren lanen kalitate teknikoaren gauzatutako prestazio eta zerbitzuen erantzulea izango da kontratista, bai eta, kontratua gauzatzean gertatzen diren huts, akats, eginbide desegoki edo okerreko bukaerek administrazioari edo hirugarrenei sorrarazten dizkieten ondorioena ere.

5.- Pertsona edo enpresa kontratistak ekipo eta giza baliabide egokiekin eman beharko du zerbitzua, eta lanen martxaren ondoriozko premiei erantzun beharko die uneoro. Halaber, bere proposamenean jasotako bitarteko teknikoak jarriko ditu, eta, orokorrean, lanak ondo egiteko beharrezko direnak.

6.- Enpresa kontratatzaileak erabakiko du kontratistak prestazioa ondo eman ote duen, hau da, kontratua egikaritzeko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen, eta, beharrezkoa bada, kontratatutako prestazioak eman daitezen eskatuko du, eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusi badu, akatsak zuzen daitezen eskatuko du. Kontratistari egotzi ahal zaizkion akats edo hutsuneen ondorioz egindako lanak kontratatutako zerbitzuari moldatzen ez bazaizkio, hori ukatu ahal izango du, ordaintzeko obligaziotik salbuetsita geratuta edo ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izanda, hala badagokio.

7. Kontratu hau gauzatzeko erabiltzen diren langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du enpresari orori dagokion zuzendaritza-boterea modu erreal, eraginkor eta jarraituan erabiltzeko betebeharra. Bereziki, honako hauek hartuko ditu bere gain: soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenen, lizentzien eta oporren emakida, ordezkapenak, laneko arriskuen prebentzioaren arloko lege-betebeharrak, hala denean diziplina-zehapenen ezarpena, Gizarte Segurantzaren arloko betebeharrak (kotizazioen eta prestazioen ordainketa barne) eta langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik ondorioztatzen diren eskubide eta betebehar guztiak.

8. Enpresa esleipendunak kontratuaren xede diren lanak egiteko behar diren langile guztiak jarri beharko ditu uneoro, lanok behar bezala egiteko eta bertan gertatzen diren absentzia guztiak estaltzeko, bajak eta oporrak barne. Esleipendunak, urtean behin, memoria bat aurkeztu beharko du, non horri buruzko gorabehera guztiak jasoko baitira (bajak, ordezkapenak…).

26. KLAUSULA.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

SPKLren 202.1. artikuluan aurreikusiarekin bat etorriz, kontratu hau betetzeko honako baldintza berezi hauek exijituko dira gizarte, lan, etika, ingurumen eta bestelako gaietan:

1. Lan-eskubideak.
2. Hizkuntza.
3. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako baldintzak.
4. Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako baldintzak.
5. Informazioaren segurtasunarekin lotutako baldintzak.

1.- Lan-eskubideak

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, produkzio-katean zehar oinarrizko lan-eskubideak errespetatzen direla bermatuko du, eta, horretarako, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzeko eskatuko du, besteak beste, askatasun sindikalari eta negoziazio kolektiboari buruzkoak, nahitaezko edo derrigorrezko lana ezabatzeari buruzkoak, enpleguaren eta okupazioaren arloko diskriminazioari buruzkoak, arraza, kolore, sexu, erlijio, iritzi politiko, nazionalitate edo gizarte-jatorriagatik, eta lanaren abolizioari buruzkoak.

2.- Hizkuntza

Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hura garatzen duten manuetan arautua. Besteak beste, bete egin beharko du, batetik, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua; eta, bestetik, Urdulizko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana- 2018-2022.

3.- -Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin lotutako baldintzak

Enpresa esleipendunak, kontratua gauzatzean, neurriak ezarri beharko ditu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko enplegua eskuratzean, sailkapenean, sustapenean, iraunkortasunean, prestakuntzan, ordainsarietan, laneko kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, bai eta kontratua duten langileen bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateratzen laguntzen duten neurrietan ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoaren arabera eta Uribe Kostako Zerbitzuen Mankomunitateko eta hura osatzen duten zazpi udaletako Berdintasunerako III. Planean (2019-2023) ezarritakoari jarraikiz.

Enpresa esleipendunak kontratua egikaritzearen ondorioz sortzen den dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan hizkuntza ez-sexista erabiliko du, emakumeekiko edozein diskriminazio-irudi edo estereotipo sexista saihesteaz gain. Ildo horri eutsiz, berdintasun-baloreak dituen irudia sustatuko da, presentzia orekatu, aniztasun, erantzukizun partekatu eta rol- nahiz genero-identitate askorekin.

4.- Laneko segurtasun eta osasunarekin lotutako baldintzak

Enpresa kontratistak laneko segurtasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, baita aplikatu beharreko hitzarmen kolektibotik eratorritakoak ere.

Enpresa kontratistak laneko segurtasun- eta higiene-neurriak hartu beharko ditu, nahitaezkoak edo beharrezkoak, kontratuaren xedearen eraginpeko langileen osotasunari eta osasunari eragin diezaieketen arriskuak zorrotz prebenitzeko.

Kontratuaren xedearen izaerak kontratistaren (edo, hala badagokio, azpi-kontratistaren) esku-hartzea eskatzen duenean, baldin eta administrazio kontratatzailearen zentroetan prestazioren bat egin behar badu, eta zentro horietan Administrazioaren beraren langileek ere lan egiten badute, jarduera hasi aurretik, parte hartzen duten enpresa eta langile autonomo guztiek lankidetzan aritu beharko dute, eta informazioa trukatu beharko dute garatuko dituzten eta beste enpresa lehiakideetako langileengan eragina izan dezaketen jardueren arrisku espezifikoei buruz.

Enpresek beren langileei jakinaraziko dizkiete jarduerak egitearen ondoriozko arriskuak, eta beharrezko eta egoki diren koordinazio-bitartekoak ezarriko dituzte. Horretarako, jasotako informazioa kontuan hartuko da lan-arriskuen ebaluazioan eta kasuan kasuko prebentzio-jarduerak planifikatzean.

5.- Informazioaren segurtasunarekin lotutako baldintzak

Esleipendunak eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduaren edozein fasetan esku hartzen duen pertsona orok sekretu profesionala gorde beharko dute datu horiei dagokienez, eta datu horiek gordetzeko betebeharra izango dute; betebehar horiek bere horretan iraungo dute, erakunde kontratatzailearekiko harremanak amaitu ondoren ere.

Esleipendunak kontratua betetzeko beharrezko izan daitezkeen datu pertsonalak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen legeria betez erabiliko ditu, bai eta erakunde kontratatzaileak adierazitako jarraibideen arabera ere.

Esleipendunak ezingo dizkie datu horiek hirugarrenei eman, ez eta kontratua betetzeko ez diren xedeetarako erabili ere.

27. KLAUSULA.- HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEEN ERANTZUKIZUNA

Enpresa Kontratista izango da kontratua egikaritzeko eragiketen ondorioz sor daitezkeen kalte eta galera guztien erantzulea, Sektore Publikoen Kontratuei buruzko Legearen 196. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Xede horretarako, kontratua esleitu aurretik, erantzukizun zibileko aseguru-poliza baten kopia aurkeztu beharko da, 600.000 euroko gutxieneko bermearekin, bai eta poliza hori ordaindu izanaren egiaztagiria ere. Poliza horrek kontratuari datxezkion arriskuak estaliko ditu, eta, bereziki, hirugarrenei eragindako kalteengatik eta enpresa esleipendunaren, haren langileen eta mendekotasun iraunkor edo noizbehinkakoa duten pertsonen ekintzen ondorioz esleipenaren xedeko zerbitzua eman bitartean sor daitezkeen erantzukizun zibilari dagozkionak. Gainera, bereziki, arauteria sektorialak eskatutako estaldura aseguratu beharko du.

Nolanahi ere, esleipenduna arduratuko da kalte-galerez, frankiziaren zenbatekoan, bai eta kalte-galera horien eta aseguru-poliza guztietan ezarritako mugen arteko aldeaz, nahiz poliza horietan estaltzen ez diren ondasun eta arriskuez ere.

28. KLAUSULA.- KONTRATISTARENTZAKO ORDAINKETAK

Kontratistak eskubidea du benetan egiten dituen lanak ordain dakizkion; betiere, hitzartutako prezioen arabera, emandako kontratuaren arabera eta Urduliz Urbanismo Sozietatea, S.A.k emandako aginduen arabera.

Prezioa 2017ko SPKLren 198. artikuluan ezarritako epeen barruan ordainduko da.

Ordainketa lau hilabete baino gehiago atzeratuz gero, kontratistak kontratua bertan behera uzteko aukera izango du, baina hilabete lehenago jakinarazi beharko dio kontratatzaileari, etendura horren ondorioz sor daitezkeen eskubideak 2017ko SPKLn xedatutako baldintzetan aitor daitezen.

Kontratatzailea sei hilabetetik gora berandutu bada, kontratistak kontratua suntsiarazteko eskubidea ere izango du, baita horren ondorioz sortutako galeren kalte-ordainak jasotzeko eskubidea ere.

Faktura: Kontratuaren enpresa esleipendunak hileka emango ditu fakturak; ondoren, organo eskudunak aztertu eta onartu beharko ditu; eta, azkenean, ordaindu.

29. KLAUSULA.- KONTRATUA ALDATZEA

Kontratuak interes publikoagatik baino ezingo dira aldatu, 2017ko SPKLren bigarren liburuko I. tituluko I. kapituluko 3. atalaren 4. azpiatalean ezarritako kasu eta moduetan, eta 2017ko SPKLren 191. artikuluan araututako prozedurarekin bat etorrita, 2017ko SPKLren 207. artikuluan aurreikusitako berezitasunekin.

30. KLAUSULA.- KONTRATUA AZKENDU ETA SUNTSIARAZTEA

1.- Kontratua betetzen denean edo aldez aurretik suntsiarazten denean amaituko da.

2.- Hona hemen kontratua suntsiarazteko arrazoiak: SPKLren 211. artikuluan aurreikusitakoak, bai eta lege horren 313. artikuluan zerbitzu-kontratuetarako bereziki jasotakoak eta agiri honetan jasotakoak ere.

31. KLAUSULA.- ONARPENA ETA BERME-EPEA

Kontratuaren helburua den zerbitzua ematen amaitzen denetik gehienez hilabeteko epean, bermea jasotzeko egintza formal eta positiboa egingo da, eta horren gaineko akta jasoko da. Era berean, BI HILABETEKO epea ezartzen da, emandako zerbitzuekin bat etortzeko akta egiten den egunetik zenbatzen hasita, zeina berme gisa ezartzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta erregelamenduzko arauetan aurreikusitako ondorioetarako.

Berme-aldi horretan, kontratista egindako lan edo zerbitzuetan ager daitezkeen akats edo hutsuneen erantzulea izango da. Epe hori igaro eta kontratatzaileak ez badu oztoporik formalizatu edo salatu, aurreko paragrafoetan azaldutakoaren arabera, orduan kontratistak ez du erantzukizunik izango.

32. KLAUSULA.- ZEHAPENEN ARAUBIDEA (2017KO SPKL-REN 192-194 ARTIKULUAK)

A) KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Enpresa kontratista, berari leporatu ahal zaizkion arrazoiak direla medio, kontratua egikaritzeko epea betetzen atzeratuz gero, epe osoan zein, hala badagokio, epe partzialetan, kontratatzaileak kontratua suntsiarazi ahalko du, eta bermea galarazi, edo eguneko zigorrak ezarri ahalko ditu.

Atzerapenen ondoriozko zigorrak kontratuaren prezioaren % 5eko multiplora iristen diren bakoitzean, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko edo jarraitzea adosteko, zigor berriak ezarriz.

B) INGURUMENAREN, GIZARTEAREN, LANAREN, BERDINTASUNAREN ETA HIZKUNTZAREN ARLOKO BETEBEHARRAK URRATZEA

Ingurumenarekin, gizartearekin edo lan-arloarekin lotuta kontratistak dituen betebeharrak bete ezean, bereziki soldaten ordainketan behin eta berriz atzeratzen bada edo hitzarmen kolektiboetatik eratorritako baldintzen aplikazioa larria eta dolozkoa bada, kontratatzaileak, SPKLren 201. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, zigorrak jarri ahal izango ditu, eta horietako bakoitzaren zenbatekoa ezin izango da izan kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino handiagoa, BEZa kanpo. Zigor horien guztizko zenbatekoak ezin izango du adostutako prezioaren ehuneko 50 gainditu. Era berean, berdintasun eta hizkuntzaren arloko urratzeak ere zehatuko dira.

C) TXARTO BETETZEAGATIK

Ez-betetzeak:

Zerbitzua ematen duen esleipendunak egin ditzakeen faltak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, horien gainean ezartzen den tipifikazioaren arabera:

A. <u>FALTA ARINAK</u>

Falta arinak honako hauek dira:

1.- Zerbitzuak behin eta berriz zuzen ez ematea (lanen kalitatea, baliabide nahikorik ez izatea, materialaren egoera eta mantentze-lanak, lanak gauzatzeko erritmoa, lan-programa aldatzea eta abar), baldin eta urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiagotan zehatu ez bada.
2.- Zerbitzuak adierazitako ordutegiaren barruan hasteko ordubete baino gutxiagoko atzerapena izatea, hilabete batean bi aldiz edo urte bakoitzean hamar aldiz gehienez.

3.- Kontratatzaileari jakinarazi gabeko etenaldia egitea edozein zerbitzutan, edozein arrazoi tartean dela, betiere urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiago gertatzen ez bada.
4.- Zerbitzuak emateko ardura duten langileek uniformerik ez izatea edo uniformea oker edukitzea, jantzigintzan erabilitako materiala gaizki aurkezteagatik eta egoera txarrean egoteagatik, baldin eta akats horiek kontratistak zuzentzen baditu 48 orduko epean, ikusitako akatsa jakinarazten zaionetik zenbatzen hasita.
5.- Erabiltzaileekin begirunerik ez. 6.- Arduraduna ezin aurkitzea edo agindutako lanak zerbitzu-orduetatik kanpo ez artatzea, betiere urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiago gertatzen ez bada.
7.- Informazioa ez bidaltzea edo parteak atzeratzea, betiere urte natural bakoitzean 4 aldiz baino gehiago egiten ez bada. Kontratistak txosten horiek egin edo aurkeztu behar ditu horietako bakoitzerako ezarritako aldizkakotasunarekin.

B. FALTA LARRIAK

Falta larriak honako hauek izango dira:

1.- Falta arinak behin eta berriz egitea.
2.- Kontratistak ez betetzea aplikatu beharreko lege- edo erregelamendu-xedapenetan, indarreko hitzarmenean, eskatutako aseguruetan, ingurumenean, segurtasun-elementu eta -neurrietan, lan-betebeharretan, Gizarte Segurantzan eta segurtasun- eta higiene-arloetan ezarritako baldintzak, zerbitzuari atxikitako langile eta makineriarekin, etab.
3.- Kontratistak ez betetzea baldintza-agirian edo eskaintzan bertan adierazitako gainerako baldintzetako edozein.
4.- Zerbitzuak behin eta berriz zuzen ez ematea.
5.- Osasun-aginduak ez betetzea edo egoera osasungaitzak, arriskugarriak edo deserosoak saihesteko aginduak ez betetzea, kontratistak formalki ohartarazi baditu eta horiek bete ez badira.
6.- Kontratistari emandako aginduak behin eta berriz ez betetzea, zerbitzuak emateko antolamenduari, moduari eta araubideari dagokienez, edo egoera txarrean dagoen funtsezko materiala ez konpontzea edo ordeztea.
7.- Langileen aldi baterako ezintasun-kasuen berri ez ematea 24 orduko epean.
8.- Edozein motatako parteak edo aldizkako txostenak faltsutzea.
9.- Plantilla aldatzea, kontratatzaileari aldez aurretik jakinarazi gabe.
10.- Makinak edo instalazioak behar bezala ez mantentzea.
11.- Kontratatzailearen funtzio fiskalizatzailea eta kontrolatzailea ez onartzea edo trabak jartzea.
12.- Kontratatutako zerbitzu publikotik kanpoko helburu edo objektuetarako erabiltzea zerbitzuari atxikitako materialak, edozein modalitate edo tituluren pean, aldez aurretik kontratatzailearen baimena eskuratu gabe.

C. FALTA OSO LARRIAK

Falta oso larriak honako hauek izango dira:

1.- Kontratatutako zerbitzua ez hastea agiri honetan ezarritako epearen barruan, ezinbesteko kasurik egon gabe.
2.- Kontratatutako zerbitzuak etetea edo ez ematea, ezinbesteko arrazoiei erantzuten dienean izan ezik.
3.- Zerbitzuak emateko moduan iruzur egitea, bitarteko egokiak edo eskatutako funtsezko elementuak erabili gabe, edo zerbitzuari atxikitako materialen bat desagertzea.
4.- Kontratistak edo haren langileek edozein ordainsari jasotzea, partikularren edo zerbitzuaren erabiltzaileen eskutik.
5.- Falta larriak behin eta berriz egitea.

33. KLAUSULA.- URRATZEAK ETA ZEHAPENAK

Kontratistak egindako faltak honela zehatuko dira:

-Falta arinak 100 eta 300 euro bitarteko isunarekin zehatuko dira. Kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da urtebeteko kontratuan 15 falta egitea.

-Falta larriek eta oso larriek berekin dakarte esleipen-prezioaren% 10eko hertsapen-zigorrak ezartzea, BEZ kanpo, arau-hauste bakoitzeko eta/edo epeak bete ez diren egun bakoitzeko, betiere arau-haustearen larritasunaren, berrerortzearen eta fede txarraren arabera.

Zehapenez gain, kontratistak kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio, kontuan hartuta egin ez den zerbitzuari buruz egiten den balorazioaren zenbatekoa, aplikatu ez diren bitartekoak, etab.

Ezarritako isunen zenbatekoa kenduko da zerbitzua edo bermea ordaintzeko ematen diren hileko ziurtagiriak ordaintzean.

Zehapenak ezartzea:

Kontratuaren gaineko arau-hauste horien ziozko zehapenok eta kalte-ordainok ezartzeko, kontraesan-espediente sumarioa jarraitu beharko da, non 5 egun naturaleko epea emango zaion alegazioak egiteko, salaketa jarri ondoren. Alegazio horiek eta zigor-espedientea sozietatearen Zuzendaritza Kontseiluak ebatziko ditu, kontratatzailearen zerbitzu teknikoak txostena egin ondoren.

Ebazpen horrek amaiera emango dio administrazio-bideari.

Kontratatzaileak, gertaeren berri idatziz jasotzen duenean, zehapen horiek ezartzeko espedientea hasiko du. Alabaina, baldin eta araua ez betetzeak egin beharreko lanen burutzapen materialean eragin larririk ekarriko ez duela uste bada edo zigor-espedientearen hasiera mesederako barik kontraturako kaltegarriagoa izango dela irizten bazaio, kontratua bermatzeko epea bukatu baino lehen hasi ahal izango da zigor-espedientea edozein unetan.

Berehala betearaztekoak izango dira ezarritako zehapenak eta kalte-ordainak, eta kontratatzaileak kontratistari egin beharreko ordainketetatik deskontatuko dira. Ordaintzeko kopururik ez badago jada, behin betiko bermetik deskontatu ahal izango dira, eta berme hori ez bada nahikoa zehapenaren zenbatekoa ordaintzeko, dagokion bide judizialaren bidez erreklamatu ahal izango da.

34. KLAUSULA.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio zibila izango da alderdien artean kontratuaren ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sortzen diren eztabaidak ebazteko eskuduna.

Jurisdikzio zibila izango da alderdien artean kontratuaren ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz sortzen diren eztabaidak ebazteko eskuduna.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du kontratua prestatzeari, esleitzeari eta aldatzeari buruzko auziak ebazteko eskumena, baldin eta azken kasu horretan aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluak ez betetzean oinarritzen bada.

Hala badagokio, SPKLren 44. artikuluan jasotako errekurtso berezia jarri ahal izango da.

I. ERANSKINA

ALDI BATERAKO ENPRESA-ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

Bigarren abizena: ……

Izena:……

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen duen enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala: ……

Ordezkatuaren IFK: ……

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

Bigarren abizena: ……

Izena:……

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen duen enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala: ……

Ordezkatuaren IFK: ……

*Eredua egokitu egin beharko da, esleipendun izanez gero aldi baterako enpresa-elkartea osatuko duen enpresetako bakoitza ordezkatzen duten pertsona guztiei buruzko datuak gehitzeko.

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena: ……

Erreferentzia-kodea:……..

HAUXE ADIERAZI DUTE:

Berariaz hartzen dutela Aldi Baterako Enpresa Elkarte moduan formalizatzeko konpromisoa, aipatu kontratuaren esleipendun suertatuz gero, honako partaidetza-ehuneko honetan:

Enpresaren izena	%

Elkartearen ordezkari edo ahalordedun bakar izendatu dute, eskubideak baliatzeko eta kontratuaren ziozko betebeharrak betetzeko botere askirekin, kontratua amaitzen den arte, honako hau:

Izen-abizenak: ……..

Lekua eta data:……..

Enpresaren izena:	Sinadura:
Enpresaren izena:	Sinadura:
Enpresaren izena:	Sinadura:

II. ERANSKINA

ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA ETA FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN ESKAINTZA-ELEMENTUEN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

Bigarren abizena: ……..

Izena:……..

NAN-IFZ: ……..

Norbere izenean 

Ordezkatzen duen enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala: ……

Ordezkatuaren IFK: ……

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena: ……

Erreferentzia-kodea:……..

Aipatutako kontratazio-espedientearen gainean eskatzen diren baldintzen eta betekizunen berri izanik, hurrengo prezioak eta, hala badagokio, formulen bidez ebaluatu daitezkeen gainerako elementuen eskaintzak proposatzen ditu.

1.- ESKAINTZA EKONOMIKOA:

OINARRIA:……

(BEZ-A):……..

GUZTIRA:…….

Lekua eta data: ……

Enpresaren izena:	Sinadura:

III. ERANSKINA

BALDINTZAK BETE ETA BALIABIDEAK BADITUZTELA ZIURTATZEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

Bigarren abizena: ……

Izena:……

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen duen enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala: ……

Ordezkatuaren IFK: ……

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena: ……

Erreferentzia-kodea:……

Behean sinatzen duenak, bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa duela, bere izenean edo lizitatzailearen ordezkari gisa jardunez, honako hau **ADIERAZTEN DU bere erantzukizunpean**:

a) Lizitatzaileak badu nahikoa gaitasun juridiko eta baliabide kontratu honen xedea betetzeko.
b) Ez dagoela sartuta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 71. artikuluan adierazitako bateraezintasun edo debeku kasuetan.
c) Egunean ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
d) Aurrekoez gain, kontratatzeko ezarritako legezko baldintzak ere betetzen ditu. Horretarako, esleipendun izan dadin proposatuz gero, konpromisoa hartzen du eskatzen zaizkion frogagiriak aurkeztuko dituela.
e) Kontratua egiteko giza baliabide eta bitarteko materialak atxikiko direla, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian adierazten diren profilak eta zehaztasunak betez.
f) Bere gain hartzen du ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA kontratatzeko. Baldintza-orri hauetan ezarritakoaren arabera, gutxienez 600.000 €ko bermea izan beharko du.

Aurreko adierazpenarekin lotuta, egoera hori agiri bidez egiaztatuko da kontratazio-organoan, azken horrek halakorik eskatzen badu.

Lekua eta data: ……

Enpresaren izena:	Sinadura:

IV. ERANSKINA

KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Lehen abizena:……

Bigarren abizena: ……

Izena:……

NAN-IFZ: ……

Norbere izenean

Ordezkatzen duen enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala: ……

Ordezkatuaren IFK: ……

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izendapena: ……

Erreferentzia-kodea:……

ADIERAZTEN DU:

Baimena ematen diot Urduliz Urbanismo Sozietatea,.S.A.ri edozein motatako eskaerak, informazioak eta jakinarazpenak posta elektroniko bidez bidaltzeko behean agertzen den helbidera, betiere Legeak ezarritako ondorio juridikoekin.

Helbide elektronikoa: ……..

Lekua eta data: ……

Enpresaren izena:	Sinadura:

V. ERANSKINA

GIZA BALIABIDEEN TAULA

Kontratazioaren xede diren zerbitzuak egiteko behar diren pertsonen kopurua adierazi beharko da eskaintzetan, baita horietako bakoitzak beteko dituen lanaldia eta eginkizunak, aplikatzen den hitzarmena, kategoriak, kontratuari eskainitako denboraren ehunekoa eta abar ere.

Zk.	LANPOSTUA	LANALDIA	KONTRATUAREN DEDIKAZIOAREN %A	KATEGORIA	HITZARMENA	ZEREGINAK
1						
2						
3						
4						